

Maiatzaren 5eko 350/2000 Foru Agindua, zerga zorrak eta zuzenbide publikoko gainerako zorrak helbideratze bankario bidez ordaintzeari buruzko gai batzuk arautu eta Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Zergabilketa Erregelamenduaren zenbait artikulua aldatzen dituen maiatzaren 2ko 42/2000 Foru Dekretua garatzen duena.

AZALPEN OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Eguneratutako Foru Agindu osoa jasotzen da bertan.

Testuaren bukaeran, foru aginduaren zenbat artikulua aldatu dituzten xedapenen zerrenda ere ageri da.

1. artikulua. Xedea.....	2
2. artikulua. Kontzeptuak.....	2
3. artikulua. Zordun fitxategien prestaketa eta igorpena.....	3
4. artikulua. Abonu eta zordunketak.....	3
5. artikulua. Dokumentazioa.....	4
6. artikulua. Sarrerak eta ordaindu gabeak.....	4
7. artikulua. Itzulketak.....	4
8. artikulua. Igorpen formatuak eta sistemak.....	5
9. artikulua. Ordainagiriak.....	5
XEDAPEN INDARGABETZAILEA.....	5
AMAIERAKO XEDAPENA.....	5

Maiatzaren 2ko 42/2000 Foru Dekretuaren bitartez, zerga zorrak eta zuzenbide publikoko gainerako zorrak helbideratze bankario bidez ordaintzeari buruzko alderdi batzuk arautu dira.

Dena den, foru dekretu hori garatu egin behar da, helbideratzen bankarioa egiteko behar diren prozedura eta gainerako alderdiak zehaztearren. Izan ere, horixe da Foru Dekretuaren helburua.

Gauzak horrela, aipatu foru dekretuaren amaierako xedapenean emandako baimena erabiliz, hauxe

XEDATU DUT

1. artikulua. Xedea.¹

Foru Aginduen xedea maiatzaren 2ko 42/2000 Foru Dekretua garatzea da. Horretarako zehaztuko dira zerga zorren eta zuzenbide publikoko gainerako zorren ordainketaren helbideratze bankarioa egiteko behar diren prozedura eta gainerako alderdiak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak haien bilketa kudeatzen duenean.

Departamentuek ezarritako prozeduren araudiari eta foru agindu honek 9. artikuluan jasotakoari jarraituz arautuko da Gipuzkoako Foru Aldundiko gainerako departamentuek kudeatzen dituzten zerga zorren eta zuzenbide publikoko gainerako zorren helbideratze bankarioen bidezko ordainketa.

2. artikulua. Kontzeptuak.

Foru Aginduan jasotakoaren ondorioetarako, honelaxe ulertuko dira:

a) Kontu euskarria: entitate laguntzaileek ordainketak helbideratzeko irekiko duten kontu murriztua da.

Hona hemen kontu euskarri horren izendapena: "Gipuzkoako Foru Aldundia. Ogasun eta Finantza Departamentua. Helbideratze sarrerren kontu murriztua". Bestela, izendapen labur hau izango du: "GFA. Ogasuna eta Finantzak. Helbideratzeak".

Kontu euskarriak ez du interesik sortuko eta ez du gasturik izango. Kontuaren funtzionamendu egokia eta kudeaketa eragiketen gardentasuna zainduko ditu entitate finantzario baimenduak, eta egoera eta mugimenduei buruzko informazio guztia emango dio Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritza Nagusiari.

¹ 1. artikulua hau irailaren 29ko 755/2000 Foru Agindua, maiatzaren 5eko 350/2000 Foru Agindua aldatzen duena, hain zuzen zerga zorrak eta zuzenbide publikoko gainerako zorrak helbideratze bankario bidez ordaintzeari buruzko alderdi batzuk arautu eta Gipuzkoako Zergabiltzetaren Erregelamenduko xedapen batzuk aldatzen dituen maiatzaren 2ko 42/2000 Foru Dekretua garatzekoaren Artikulu bakarrak aldatzen du. 2000ko urriaren 7an sartzen da indarrean.

b) Mugaeguna: entitate finantzario baimenduak zergadun edo zordunen kontuetan ordainketa helbideratuko zordunketak kobratu behar dituen eguna da, alde batetik, eta aldi berean Gipuzkoako Foru Aldundiaren kontu euskarrian zenbatekoa abonatu behar den eguna ere bada, bestaldetik.

Izaera orokorrean, zorra borondatezko aldian ordaintzeko epearen azken egunarekin bat etorriko da mugaeguna. Dena den, zirkunstantzia jakin batzuetan hala behar denean, zordunketa bolumen handiarengatik edo frogatu daitezkeen bestelako arrazoiengatik, izaera orokorrean jarritako mugaegunaren ondorengo beste bat finkatu ahal izango du Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritza Nagusiak.

c) Ordainketa eguna: entitate finantzario baimenduak helbideratzeen kontu euskarrian lortutako saldoa Gipuzkoako Foru Aldundiaren kontu nagusian ordaindu behar duen eguna da.

d) Balorazio eguna: entitate finantzario baimenduak kontu zentrolean ordaindutako zenbatekoari balioa emango dion eguna.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritza Nagusiak finkatuko du balio eguna. Era berean, mugaegunaren ondorengo bost egun naturalen barruan egon behar du balio egunak.

3. artikulua. Zordun fitxategien prestaketa eta igorpena.

1. Helbideratze bankarioa zorrak ordaintzeko modalitate gisa finkatu ondoren, zordun fitxategiak prestatuko ditu Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak. Gutxienez, datu hauek jasoko dira haietan:

a) Zordunketen zenbatekoa.

b) Helbideratze kontuak (b.k.k.).

c) Mugaeguna.

2. Fitxategiak prestatu ondoren, entitate finantzario baimenduetara bidaliko ditu Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritza Nagusiak, mugaeguna baino bi lanegun lehenago gutxienez.

4. artikulua. Abonu eta zordunketak.

1. Aurreko artikuluan aipatutako fitxategiak jaso ondoren, entitate finantzario baimenduek zordunketak egingo dituzte, mugaegunean, helbideratze kontuetan.

2. Kontu euskarrian lortutako saldoa Gipuzkoako Foru Aldundiaren kontu zentrolean ordainduko da, ordainketa egunean.

Inola ere, entitate finantzarioek ezingo dute zordunketarik egin Gipuzkoako Foru Aldundiaren kontu zentrolean.

3. Izaera orokorrean, balorazio egunaren aurreko lehen lanegunean, entitate finantzario baimenduek sarrera garbiaren zenbatekoa eta ordaindu gabeko helbideratzeen zenbatekoa sartuko dituzte kontu zentrolean, eta espresuki

jakinaraziko diote Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko Finantza Zerbitzuari.

Jaiegunak pilatzen direnean eta salbuespenez, Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritza Nagusiak finkatuko du egun hori.

5. artikulua. Dokumentazioa.

1. Entitate finantzario baimenduek Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko Kontabilitate Zerbitzuari igorri beharko diote, Departamentuko Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritza Nagusiak finkatutako datan, aurreko artikuluan aipatutako kontu zentrolean egin den abonua, bai eta ordaindu gabe geratu diren helbideratzeen dokumentazioa ere.

Aurreko parrafoan aipatutako data mugaegunaren ondorengo bost lanegunen barruan egongo da.

2. Horretarako izendatutako kontuan zordundu ezin izan diren helbideratzeei buruzko dokumentazioan zehaztu beharko da zergatik ezin izan den kargu hori egin. Arrazoi hauetako bat besterik ez da onartuko:

a) Saldo nahikorik ez.

b) Akatsa bezeroaren kontu kodean (b.k.k.).

c) Helbideratze akatsa, Gipuzkoako Foru Aldundiari leporatu dakiokkeen.

6. artikulua. Sarrerak eta ordaindu gabeak.

Aurreko artikuluan aipatutako dokumentazioa jaso ondoren, honelaxe jokatu du Ogasun eta Finantza Departamentuak:

a) Benetan egindako sarrerak kontabilitatean egotziko ditu.

b) Horretarako izendatutako kontuan zordundu ezin izan diren helbideratzeei dagokienez, honelaxe jokatu du:

- Kontuan kargua egitea ezinezkoa izan bada bezeroaren kontu kodean izandako akatsa dela medio edo Ogasun eta Finantza Departamentuari leporatu dakiokkeen akatsa dela medio, akatsa zuzenduko du.

- Kontuan kargua egitea ezinezkoa izan bada "saldo nahikorik ez" dagoelako edo bezeroaren kontu kodean edo zergadunari edo ordaintzera behartuari leporatu dakiokkeen akatsa izan delako, zorrak ordaindu gabekotzat hartuko dira. Gainera, zor horri dagokionez, premiamendu bidean biltzen hasi edo, hala badagokio, jarraituko da.

7. artikulua. Itzulketak.

1. Salbuespen moduan, aurreko artikuluan aipatutako dokumentazioa igorri ondoren entitate finantzarioak bezeroaren kontu kodean (b.k.k.) izandako akats batean edo Gipuzkoako Foru Aldundiari leporatu dakiokkeen akats batean oinarritutako erreklamazioa jasotzen badu bezeroarengandik, kontuan egindako kargua deuseztatu ahal izango du, jarduketa hauek burutu ondoren:

a) Akats hori izan dela egiaztatzea.

b) Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko Kontabilitate Zerbitzuak adostasuna eskatzea.

2. Aurreko apartatuan aipatutako erreklamazioa mugaegunaren ondorengo hogeita hamar egun naturaleko epean egin ahal izango da gehienez.

3. Kontabilitate Zerbitzuak, aurretik organo eskudunak baimenduta, oker egindako sarreraren itzulketa tramitatuko du. Horretarako, bezeroak erreklamaturako kopurua ordainduko dio entitate finantzarioari, zazpi laneguneko epean berreskurapena baimentzen denetik aurrera.

4. Artikulu honen 1 apartatuan zehaztutakoez bestelako arrazoiengatik edo 2 apartatuan aipatzen ez den epean egindako edozein itzulketa erreklamazio Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentura zuzendu beharko du zergadunak edo ordaintzera behartuak, horretarako okerreko sarrerak itzultzeko prozedurari jarraituz.

8. artikulua. Igorpen formatuak eta sistemak.

1. Euskarri magnetikoetan prestatuko dira Foru Aginduak hurrenez hurren 3. eta 5. artikuluetan aipatutako zordun fitxategiak eta dokumentazioa, Bankuen Kontseilu Gorenak 19. Liburuxkan jasotako zehaztapenetan jasotakoaren arabera. Horretarako, fitxategiak igortzeko sistema elektronikoaren bidez bidaliko dira, Ogasun eta Finantza Departamentuak adierazitakoaren arabera.

2. Salbuespen moduan, aurreko 1 apartatuan ezarritakoez bestelako igorpen euskarri eta sistemak erabiltzea baimendu ahal izango du Ogasuneko eta Finantzarako foru diputatuak.

Ordaindu gabeko helbideratzeak idatziz jakinaraztea baimentzen denean, Foru Aginduaren eranskinean jasotako eredia erabiliko da.

9. artikulua. Ordainagiriak.

1. Ordainagiri izaera izango dute Bankuen Kontseilu Gorenak onartutako arauzko ereduaren arabera prestatutako "Helbideratze zordunketa" formularioek, baldin eta entitate finantzarioek zergadunei edo zordunei bidaltzen badizkiete Foru Aginduak 1. artikuluan aipatutako zorren ordainketa helbideratzearen ondorioz.

2. Aurreko artikuluan aipatutako formularioetan, apirilaren 9ko 27/1991 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Zergabilketa Erregelamenduari buruzkoak, 31. artikuluan jasotako zirkunstantziak adierazi behar dira, gutxienez.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Foru agindu hau indarrean jartzen denetik aurrera, indarrik gabe geratuko da ordainagiriei buruzko irailaren 30eko 665/1993 Foru Agindua.

AMAIERAKO XEDAPENA

Foru agindu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean.

ERANSKINA

Entitate finantzarioa:

Zerga kontzeptua:

Aldia:

IFK:

Deiturak eta izena /Sozietatearen izena

Kontu korrontearen kodea:

Zenbatekoa:

Barne erref. kodea:

Arrazoia:

GUZTIRA:

ALDAKETAK

Honako zerrendan foru aginduak izan dituen aldaketak jasotzen dira.

- *Irailaren 29ko 755/2000 Foru Agindua, maiatzaren 5eko 350/2000 Foru Agindua aldatzen duena, hain zuzen zerga zorrak eta zuzenbide publikoko gainerako zorrak helbideratze bankario bidez ordaintzeari buruzko alderdi batzuk arautu eta Gipuzkoako Zergabilketaren Erregelamenduko xedapen batzuk aldatzen dituen maiatzaren 2ko 42/2000 Foru Dekretua garatzekoa.(2000-10-06eko GAO)*

-Artikulu bakarrak 1. artikulua aldatzen du